

Duela 85 urte 2. Errepublika aldarrikatu zen eta egungo egoera politikoa dela eta, geroz eta gehiago dira 3. Errepublika eskatzen duten

Duela bi urte, sistemak aldaketa kosmetikoa jasan zuen. Borboiko Juan Carlosen abdikazioak bidea eman zuen bigarren transizio bezala burutu nahi dutena.

Baina Felipe VIa errege berriaren aldarrikapenak Euskal Herriko kale eta plazak aurka aurkitu zituen. Herriak tutoretzarik ez zuela nahi eta bere patuaren jabe nahi izan zuela oihukatu zuen. Bilbo, Donostia, Gasteiz, Irun, Erreneria, Iruñea eta abarreko herrie eta hiriek Monarkia edo Errepublikaren artean aukeratu ahal izateko eskubidea esijitu zuen.

Transiziotik jaso dugun Estatu eredia agortuta dago: 1978ko Konstituzioa inork bermatzen ez dituen eskubideak aitortzen ditu eta egungoak bezalako garai zailetan krisiaren zama langileengan uzten du.

Hemen gaudenok gaitzesten du sistema hau: agortuta dagoelako, bidegabekoa eta gabezia demokratiko larriak izanetik gainera herriari uko egiten dio bere etorkizunari buruz erabakitzeko ahalmena

- Eskubide sozialak hasieratik baliogabetuak geratu direlako, lana edo etxebizitza duina bat izateko bezala.
- Erregimen ustela eta legeztasunik gabekoa.
- Frankismoaren zigorgabetasuna ahalbideratzen duelako.
- Bere hezkuntza politikak pertsonen osoko garapenera bideratuak ez daudelako.
- Bere eredu ekonomikoa kapaza ez delako herriari bizimodu duin bat eskeintzeko.
- Herrien erabakitzeko eskubidea ez duelako aintzat hartzen.
- Askatasun demokratikoak, eta iritzi eta manifestazio eskubideak mugatuak eta mehatxatuak izaten ari direlako.
- Kanpoko politika EEBBak eta OTANen interesen mende jartzen dituelako, parte hartuz beste herriei antolatzen duten eraso imperialistetan.

Hau guztiagatik, urtero ospatzen dugun manifestazio hau egun berezi bat da, bai langillen memoria demokratikoa aldarrikatzeko, bai borroka eguna bezala. Langileok iraultza demokratikoa behar dugu, baliabideko publikoak gehiengoaren zerbitzura ipintzen dituen, langabezia, ustelkeria eta murrizketen errejimenarekin bukatzeko.

Adierazten dugun gure asmoa prozesu errepublikanoa bultzatzea da, herrien erabakitzeko eskubidea eta langileengan oinarrituko den Errepublika, eta herritar guztioi dei egiten diogu, edukiz betetzeko, sustatu eta defendatzeko.

Prozesu eratzaille baten alde!

Monarkia kanpora!

gora Errepublika!